



ALDUNDIAREN JAUREGIA
B MAILA**GIPUZKOA PLAZA 1**

Egileak eta data: Jose de Goicoa; 1879;
Luis Aladren eta Adolfo Morales de los Rios, 1887

Deskribapena

Gipuzkoa Plazaren mendebaldeko etxadiaren zati bat okupatzen du. Fatxada nagusia plazaren konposizio jarraitutik ateratzen da, eta monumentu izaera nabarmenagatik bereizten da. Behe oineko arku saila bakarrik da komuna multzo osoan eraikuntza soluzioa bera ez den arren. Era berean, goialdeko gorputzaren ordena bikoitza bereizi egiten da etxebizitzaren hiru oinekin alderatuz. Aldundiaren Jauregia ere literalki ateratzen da plazan, jauregiaren erdiko gorputza aurrerago dagoelako fatxadari nolabaiteko sakontasuna erantsiz. Bertan zutabeak eskultura balio batekin bereizten dira. Erdialdearen adierazpenean eskema klasizista baten arabera harlanduan eraikitako fatxadaren zati azpimarragarriena da hau. Gainera, ertzetan errematatuak dauden alboko bi hegal aurkituko ditugu. Erdiko gorputza gehiago nabarmentzen da bere erliebeari eta bi oinen gainean dagoen atikoari esker. Zati honetan fatxada altuagoa da. Hain zuzen ere, proportzioen sekuentzia bertikal hori izan daiteke eraikinaren kanpoaldearen alderdi azpimarragarrietako bat, karrerapeen espazioarekin batera. Azpeitia, Donostia, Tolosa eta Bergarako armariak, eta Okendo, Urdaneta, Legazpi, Lezo eta Elkanoren irudiak nabarmentzen dira. 1878an Goicoak egindako lehen proiektuaren arabera erdian festa areto handi bat jarriko zuten, eta honen bi aldeetara Aldundia eta estatuko gainerako zerbitzuak. Hiru gorputz independenteen ideari eutsi zitzaion 1879ko zuzenketa batean. Kasu horretan erdiko gorputza Foru Aldundiaren egoitza gisa geratuko zen, eta alboetako bi gorputzak Gobernu Zibilerako eta Ogasun Ordezkaritzarako. Goicoaren bigarren proiektu hau 1885ean amaitu zuten eraikitzen, plazako gainerako eraikinak baino beranduago. Urte horretan bertan sua hartu zuen eta fatxadak bakarrik libratu ziren. 1887an eraikinaren barrualdeko proiektua Aladren eta Morales de los Rios arkitektoei agindu zieten. Arkitekto hauek barruko espazioak luxuzko materialez eta dekorazio finez berregin zituzten. Adibidez Carrarako marmolezko eta brontzezko eskailera, edo Echenagusia diseinatutako beiratea, edo Elkano aretoa Salaverriaren eta Urangaren pinturekin. 1914an Ramon Cortazarrek handitzeko obrak zuzendu zituen, Gobernu Zibila lekuz aldatu ondoren. Eta 1919an etxadiaren atzeko beste bulego batzuk laga zituzten.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen B babes mailan sartzearrekin loturikoa.
- 2.- Berriazko erregimena.
 - A.- Babestu gabeko elementuak: nagusiak ez diren barne espazioak.
 - B.- Elementu iraunkorrak: eraikinaren kanpoko konfigurazioa, bere bolumena eta lerrokatzeak, errematea eta estalki profila, txapitulak eta apaindrako motiboak; bao guztiak eta euren fatxaden konfigurazioa, baita karrerapeen barrukoak ere, harrizko harlandua, burdingintza eta kanpoko arotzeriak; eskailera nagusia eta bere barrutia; aretoen eta barruko espazio nagusien konfigurazioa, dekorazioa eta arotzeriak; beirateak.
 - C.- Handitzeko edo aldatzeko murrizketa partikularrak:
 - * Jasodurak ez dira onartuko.
 - * Gipuzkoa Plaza multzoaren barruan egotearen ondoriozkoak.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzek: ez.